



BEZEROEKIN ERLAZIOA

Bezerearekiko harremanak zure bezero-basea nola eskuratu, atxiki eta hedatu behar duzun definitzea ahalbidetzen dizuten estrategia guztiei egiten die erreferentzia. Kontsumitzaileekin harreman ona ezartzea funtsezkoa da hainbat arrazoirengatik, eta emaitza handiak ekarriko dizkio zure negozioari. Kontsumitzailea bere oinarrian mantentzeko funtsezko gaia izateaz gain, erabakigarria da enpresa baten emaitzak optimizatzeko.

FISIKOKI:

Lehenik, gure bezeroekin fisikoki erlazionatuko gara. Neurriak hartzeko, izena emateko (klaseetara joan nahi badute) eta taulak erosteko fisikoki egingo dugu. Aukera izango dute taula ukitzeko eta ondo ikusteko, bukatzeko taulak jaso egin beharko dituzte. Beste aldetik, elbarrituak ez direnak aukera izango dute gure klaseetara joateko, beraientzat klaseak izango dituztelako. Beraz, gure bezeroak edozein motatakoak izan daitezke.



WEB ORRIA:

Horretaz gain, gure web orrian arreta zerbitzuak izango ditugu, telefono zenbaki bat, bezeroek dituzten ideiak guri helarazteko postontzia, sare sozialak, instagram kontu bat hain zuzen. Fisikoki, gure surf eskolako rezezioan beti norbait egongo da, bezero batek galdera bat badu hona etorri eta gladetzeko, edo ordutegiak eta klaseak kudeatzeko. Gure fabrian, bezeroa fisikoki joan beharko da surf taula erostera, honek abantaila dakar bezero eta saltzailearen arteko gertutasunarengan, modu hontan ere, surf taula ukitu eta ondo ikusteko aukera edukiko dute. Horretaz gain, gure bezeroen kopurua handitzeko, administratzaile batzuk edukiko ditugu gure webgunea kontrolatzen, baita, gure taulak erakusten eta klaseko ordutegia azaltzen ere, honela, bezeroek klaseetarako orduak askoz errazago erreserbatuko dituzte.



SARE SOZIALAK:

Web orriaz gain sare sozialak izango ditugu, taulak ikusteko eta gurekin harremanetan jartzeko. Gure taulen argazkiak eta hauei buruzko informazioa igoko dugu, bezeroek gure lanaren buruzko informazioa eskuragarri izan dezaten. Gurekin kontaktatzeko gure telefonoa eta gmail-a izango dute eskuragarri, bai web orrian eta baita sare sozialetan. Gure lana gustuko baldin badute eta interesatuak badaude, web orriaren bidez edo telefono zenbakiaren bitartez erosketa prozesua edo surf egiteko hitz ordua adosteko aukera izango dute.

